

### A FITXA

- Ikasleak motibatzen jarraitzeko irakasleak bere bihurrikeria bat kontatuko du. Kontaketa **ahoz** egingo du, paperik gabe. Ez dago nahitaez beheko adibidea kontatu beharrik, baina garrantzitsua da **EREDUTIK HURBIL EGOTEA** (antzeko eskema izatea eta letra larriz dauden egiturak agertzea). Izan ere, ikasleentzako langai izango dena jasotzen da.

ADIBIDEA:

**Bost urte nituenEAN**

**Nire anaiarEKIN/nebarEKIN/ ahizparEKIN kanpingeko txirrista batEAN**

**NENGOEN**

**eta txirrista BUSTI NUEN eta ondoren ESAN NION: karrera EGINGO DUGU**

**txirristan, lehenengo zu! Anaia korrika JOAN ZEN eta praka guztiak BUSTI**

**ZITZAIZKION.**

**Noski, HASERRETU EGIN ZEN eta gurasoek ESAN ZIDATEN nire praka berriak**

**anaiari uzteko. Azkenean arratsalde osoa galtzontzillotan PASATU BEHAR IZAN**

**NUEN.**

- Ondoren, **zer iruditu** zaien **galdetu diezaieke irakasleak** ikasleei, bihurrikeriaren gainean hitz egin.

## B FITXA

- Irakasleak emandako eredu aintzat hartuta, bihurrikerian **zein informazio eman den aterako da irakasle eta ikasleen** artean: *zer kontatu dut? Zein informazio eman dizuet?* Oinarrizko galderak egingo dira. Irakasleak arbelean idatzi dezake ikasleek emandako informazioa eta hartara, guztion artean kontaktaren “eskema” aterako dugu.
  - ☐ Noiz gertatu zen: Bost urte nituenEAN
  - ☐ Norekin nengoen: nire anaiaREKIN nengoen
  - ☐ Non gertatu: kanpingeko txirrista bateEAN
  - ☐ Zer gertatu zen: txirrista BUSTI (bihurrikeriekin lotutako ekintza-aditzak) NUEN eta anaiari ESAN NION: karrera EGINGO DUGU txirristan, lehenengo zu! Anaia korrika JOAN ZEN eta praka guztiak BUSTI ZITZAIZKION.
  - ☐ Eta ondoren zer gertatu zen: Anaia HASERRETU EGIN ZEN eta gurasoek ESAN ZIDATEN nire praka berriak anaiari UZTEKO. Azkenean arratsalde osoa galtzontzillotan PASATU BEHAR IZAN NUEN.
- **Ikasleek** bihurrikeria kontatzeko **eskema jasoko** dute: bakoitzak bere koadernoan kopiatuko du, edo irakasleak emango die eskura...

Galderak	Erantzunak
- Noiz gertatu zen?	
- Norekin gertatu zen?	
- Non gertatu zen?	
- Zer gertatu zen?	
- Zein ondorio izan zituen?	

- Hurrengo saiorako **kontsigna** emango da, **soilik 1. taldeari** eskatuko zaio:
  - ✓ Bihurrikeriaren eskema kontuan hartuta, bete etxean bakoitzak egindako bihurrikeriaren batekin. Ez baduzue gogoratzeko, gurasoei edo gertukoei galdetu.
  - ✓ Egunero talde batek kontatuko ditu bere bihurrikeriak, bakarka.



### C FITXA

- 1. ikasle taldeak bihurrikeriak kontatu ondoren, **fokua jarriko** dugu hainbat **hizkuntza egituretan**: *kontatu dizkiguzuen bihurrikeria hauetan aztertuko dugu zein eratako informazioa eskaini diguzuen...*

**Esku-hartzea bideratzeko** irakasleak gogoan izango du eskema (ikus A fitxa) eta, era honetako **galderak** proposatuko ditu, fokua **hizkuntza formetan** jartzeko:

- ✓ Egindako bihurrikeria bat kontatzen ari bagara, jakin badakigu aurretik eginda dagoela, ezta? Hau da, kontatzen ari garen unea baino lehen? Hori nola adierazi dela iruditzen zaizue? Nola dakigu? → (ikasleen adibideak ekarri)
  - ✓ Zerbait, *atzo, aspaldi, noizbait, duela hainbat urte*, egin dudala adierazteko “gaur gertatu da” esan dezaket, ala “gertatu zen” esan beharko nuke? Zuen ikasleek zein adibide erabili dituzte? Ekintza hori lehenaldian egongo da eta aditza ere lehenaldikoa izango da, ezta?
  - ✓ Bihurrikeriak nonbait gertatzen dira, ezta? **NON** gertatu dira zuen ikaskideen bihurrikeriak? (etxeAN, parkeAn)...Tokiren baten izena esatea aski da? Toki hori zehazteaz gain zein atzizki jarri ohi da?
  - ✓ Bihurrikeria bat bakarrik egin dezakezu, ala beste norbaitekin ere bai, ezta? Beraz, iruditzen zaizue garrantzitsua dela entzuleek jakitea **NOREKIN** gertatu zen? Zuek nola adierazten duzue norbaitekin gertatu dela? -(R)EKIN/-(E)GAZ erabili behar dugu?
  - ✓ Baina nik noiz gertatu zen, non gertatu zen eta norekin gertatu zen esan eta zer gertatu den esango ez banu, konforme geratuko zinatekete? Iruditzen zaizue, zer gertatu den esaten ez badut, bihurrikeria bat kontatu dudala? Ikaskideen adibideetan **ZER** gertatu da?
  - ✓ Bihurrikeria bat egiten duzuenean, ondoren **ZERBAIT** gertatzen al da? Zuek bihurrikeria bat egin duzuenean norbait haserretu da? Zer gertatzen da? ondoriorik izan ohi du?
- Beraz, elkarrekin hitz egindakoa kontuan hartuko dugu gure bihurrikeria prestatzen dugunean.

### C1 FITXA

- **Etxean ikertzeko lana: garrantzitsua da familiaren inguruko lexikoa lantzea, bihurrikeria kontatzeko eskakizun baita.** Hortaz, ikasleei etxerako lan gisa familiako zuhaitz genealogikoa osatzeko eskatuko zaie etxekoen laguntza baliatuz. Irakaslearen esku geratuko da ereduren bat eman nahi izanez gero.

#### D FITXA

- Etxean egindako **zuhaitz genealogikoa berreskuratuko** da saioan. Ikasle bakoitzak tarte bat hartuko du **berezitasunen bat kontatu nahiko** balu, behartu gabe, baina jakinda elkar ezagutzeko bidea izan daitekeela. Irakasleek aztertuko dute zein den **biderik egokiena**: ahoz, idatziz, anonimotasuna zainduz, irakasleak bere zuhaitza ere aurkeztuz...
- Irakasleek informazioa eman ahala, **irakasleak lagundu** egingo du **familiari** lotutako **hiztegiarekin** (ahizpa, neba, arreba, iloba...). Ikasleren batek hitzen bat ezagutzen ez duenean, gainerakoei galdetuko die edo irakasleak berak esan eta azpimarratuko du, adibidez. Dena den, ondorengo egunetan familiaren lexikoa lantzeko ariketa esplizituak egingo direnez, patxadaz hartuko da saio hau.

## E FITXA

- **Familiako lexikoa** landu eta erabiltzeko hitzen “txanda pasa” jolasa erabil liteke saioan. Kartulina batean edo arbelean bertan, uztai moduko bat irudikatuko da alfabetoko letrez inguratuta. Irakasleak edo ikasleren batek definizioa emango du eta beste ikasleren batek definizio horren atzean dagoen familiako lexikoa zein den atera beharko luke, jakinda definizio horren atzean dagoen hitzaren lehen letra uztaian zehaztuta dagoela. Hitz egokia asmatzen ez bada, txanda pasa eta beste ikasleren batek asmatu beharko luke.

### Adibidez:

- **A letra:** amaren edo aitaren aita zer izango litzateke niretzat? (**aitona/aitita**)/ amaren edo aitaren ama nola izendatuko zenuke? (**amona/ amama**)/ gurasoentzat ume emakumezkoa? (**alaba**) /...
  - **F letra:** sendia esateko beste modu bat (**familia**)
  - **G letra:** norbere semea edo alaba zaintzen edo hezten duen pertsona zein da? (**guraso**)
  - **H letra tartean darama:** gurasoen anaia-arreben semea (**lehengusu**)
  - **I letra:** anai-arreben semeari edo alabari nola deitzen diot? (**iloba**) / amaren ahizpa zer da niretzat? (**izeko/izeba**)
  - **K letra:** nire ahizparen bikoteari (senar/emazte) nola deitzen diot? (**koinatua**) eta anaiaren bikoteari (senar/emazte)?(**koinata**)
  - **L letra:** gurasoen anaia-arreben alaba? (**lehengusina**)
  - **N letra:** neskaren anaia esateko beste modu bat? (**neba**)
  - **O letra:** amaren anaia zer da niretzat ? (**osaba**)
  - **S letra:** Gurasoentzat ume gizonezkoa? (**semea**)
- 
- **Familiako lexikoa** landu eta erabiltzeko askotariko familien **karta-jokoez** baliau gintezke. Karta jokoan launaka aritu daitezke eta etxe ezberdinetako familiak bere osotasunean osatzea izango litzateke jomuga (familia-eredu ezberdinak osatzea, alegia). Ikasleen artean kartak banatuko dira eta norbaitek familiako kideren bat faltako balu bere familia-eredua osatzeko, karta jokoan dabilzan gainerakoei eskatu beharko die, eta horretarako, falta zaion kidearen izena esan beharko du: “nik nahiko nuke familia honetako *alaba, semea, aita, aitona, amona, amaginarreba, aitaginarreba...* “

Karta jokoan ari denak zein senitartekori buruz ari den antzemango ez balu, eskatu duenak **azaldu, birformulatu edo definitu egin beharko** du zeini buruz ari den (hitzen txanda-pasa jokoan egindakoz ere balia liteke).

### F FITXA

- Dinamika honen bidez **deklinabide markak** landuko dira: *norekin, nori, noiz, non...* Horretarako ikasleei galdera-bihurri sorta bat proposatuko zaie. Galderak modu ezberdinean aurkeztu daitezke: arbelean jarri, paperean eman idatzita, zaku baten sartu eta bakoitzak papertxo bat (galdera bat) hartu.... Galdera bakoitzak deklinabide-marka bat lantzea du helburu. Hasieran talde txikian egin daiteke, ondoren, talde handian. Irakasleak deklinabide atzizkiak (etxeAN, lehengusueKIN...) azpimarratu eta gorai patuko ditu ondo erabiltzen direnean, beharrezkoa denean birformulatu edo gainerako ikaskideei beste modu batean esateko eskatuko die.

### GALDERA BIHURRIAK

- ✓ *Norekin bizi izan duzu bizitzako sekreturik handiena?*
  - ✓ *Nori kontatuko zenioke sekretu bat?*
  - ✓ *Noiz esan diezu gurasoei gezurra?*
  - ✓ *Noiz xaxatzen dituzu anaia-arrebak?*
  - ✓ *Non ezkututzen zara inork aurkitzerik nahi ez duzunean?*
  - ✓ *Norekin egiten dituzu ametsik politenak? Eta beldurgarrienak?*
  - ✓ *Gauean beldur zarenean zer egiten duzu?*
- Ariketa amaitu eta gero, **irakasleak lotura egingo du DEKLINABIDE atzizkien eta bihurrikerien artean**. Alegia, ikasleei gogoraraziko die bihurrikeriak

### G FITXA

- Denborazko esaldiak lantzeko **“katea” jolasa** egingo dugu. Ikasle batek esaldi bat sortuko du **“-ENEAN”** denborazko egitura erabiliz. Jarraian, ondoko ikasleak segida emango dio. Hirugarren ikasleak berriz sortuko du denborazko perpausa **“-ENEAN”** eta ondoko ikasleak jarraipena emango dio. Horrela, talde osoan egin bitarte. Talde handian egin daiteke.

Adibidea:

- ✓ Atea ireki zuenean...
- ✓ Gizon zahar bat agertu zen...
- ✓ Gizon zahar bat agertu zenean...
- ✓ ....

- Jolasa amaitu eta gero, **irakasleak lotura egingo du –ENEAN atzizkiaren eta bihurrikerien artean**. Alegia, ikasleei gogoraraziko die bihurrikeriak kontatzerakoan egitura hori erabil daitekeela.




### H FITXA

- **Kokatu:** egin duguna gogorarazi eta lantzen hasiko garen **gai berria aurkeztu**.  
*Orain arte gure bihurrikeriak kontatu ditugu baina datorren saiotik aurrera, Antonio Bolas zein den jakingo dugu eta bere bitxikeriak ezagutuko ditugu...ondoren aukera izango dugu guk geuk bere anekdotak gainerakoei kontatzeko.*

## I FITXA

- Lehenik eta behin, irakasleak **Antonio Bolas** nor zen azalduko du, gaiari kokatzeko eta ikasleei interesa pizteko. Hurrengo orrialdean, irakaslearentzako informazio orokorra eman da. Gogoratu: irakasleak ez du informazioa irakurriko, baizik, ahoz kontatuko du Antonio Bolasen inguruan dakiena.



- Irakasleak prestatuta ekarriko du Antonio Bolasen pasartea. Gelan ahoz, pasartearen kontaketa egingo du. Beste pasarte bat nahi izanez gero, *M fitxan* pasadizo gehiago jaso dira.

### INFORMAZIO OROKORRA (Antonio Bolas)

Bazen behin izen asko zituen gizon bat: Antonio, Antonio Kaleko, Antonio Bolas (bola=gezurra), Antonio Trolas, Ttaka, Antonio Gezurti, Antonio Gezurteroa...

Bizi izan zen bitartean nahiko barre eta algara eragin zion jendeari. Hain zen zelebrea, hain irudimentsua, hain zen berezia bere umorea...Hor ikusi ohi genuen behin baino gehiagotan jendez inguratuta, nahiz kalean, nahiz tabernan eta nahiz autobusean. Bazuen, bai, Antoniok jendeari barre eragiteko dohain berezia.

1923ko urriaren 20an jaio zen Gipuzkoako herri batean, Zegaman. Berak esan ohi zuen bi aldiz jaio zela. Lehenengo aldiz jaio zenean, ondo osatu gabe zegoen artean, eta barrura sartu omen zuten berriro, etorritako lekura. Handik egun batzuetara jaio omen zen bigarren aldiz.

Antonio Irigoras Agirre ziren bere izen-abizenak. Segurako Joana eta Zeraingo Gabino zituen gurasoak. Sei senidetatik laugarrena zen Antonio. Lehenengo hirurak Zerainen jaio ziren, eta ondorengo hirurak Zegaman.

(...)

Nolakoa ote zen Antonio txikitan? Garai hartan ezagutu zutenek diote mutiko bizia eta bihurria zela. Jolasten hasten zirenean, bi eskuen gainean jartzen omen zen, hankak goian luze-luze zituela, "Muita eolos" esaten omen zuen. Dotrinara ere joaten omen zen, noski, lurreko eta zeruko kontuak ikastera. Hango esplikazio guztiak entzun ondoren, honela esaten omen zuen Antonio: "Niri ez dit inporta gaur hil edo bihar hil". Hala ere, heriotza askoz beranduago heldu zitzaion: 1999ko ekainaren 14an.

Txikitan oso gutxi jaten zuen, nonbait: ia esne-zopekin bakarrik hazi omen zuten, beste ezer jan nahi ez zuelako. Horregatik ez zen izango agian Antonio gorputz handiko gizona.

(...)

Oso gazterik, 16 urterekin, morroi joan zen bere auzoko baserri batera. Trenbidean ibili zen lanean gero. Soldaduska Iruñean eta Lesakan egin zuen, nahiz eta berak esan soldaduska Afrikan egin zuela eta hantxe igaro zituela urte batean lau uda. Soldaduskatik etorri zenean, igeltsero lanean hasi zen. Hori izan zen handik aurrera erretiroa hartu arteko bere lanbidea.

(...)

Baina dirudienez, ez zen hain gaizki bizi izan. Etxean katu bat zeukala esan ohi zuen, eta hark egiten zizkiola lan guztiak, primeran bizi zela. Beste gauza bat ere bazuen Antonio: oso umezalea zen. Auzoko umei gozokiak ekartzen zizkien, eta beste hainbat pitxi ere bai.

(...)

Antonioren eguneroko bizimodua langile soil batena izan zen. Igeltseroa zen langintzaz (...) Hala ere, Antonioren dohainik handiena gezurrak esateko artea zen. Gezur bereziak, irudimentsuak, finak, esaten zituen denak barrez lehertzen jartzeko modukoak.

URDANETA eskolako ikasle batek gomendatuta ere:


[http://txikiweb.urdaneta.ikastetxea.net/TXIKIWEB%202015-2016/2015\\_11\\_12/ORRIZ-ORRI.html](http://txikiweb.urdaneta.ikastetxea.net/TXIKIWEB%202015-2016/2015_11_12/ORRIZ-ORRI.html)

PASARTEA (irakasleak ahoz kontatzeko)

### GASOLINARIK GABE

Velentziara eta Sevillara hegazkinean egiten zituen bidaia horietako batean oso gaizki ibili omen zen behin Antonio Kaleko. Hala kontatu zigun behintzat berak, serio-serio, egia balitz bezalaxe, dozena-erdi bat laguni iluntze batean.

- *Bai, larri asko ibili nintzen lehengoan goi horretan (zeruan), igual ez duzue sinistu ere egingo, baina...*
- *Orain ere ba al duzu abentura berriren bat, Antonio? Kontatu, kontatu...*
- *Bai, ttaka, baaai...Banentorren lehengo batean hegazkinean Sevillatik eta gasolinarik gabe geratu nintzen, baaai...*
- *Hara, hara, ari al da orain ere gure Antonio bolaren bat kontatzen, ala? –Esan zuen orduan hurbildu zen herritar batek zerbait esateagatik.*
- *Ixo, ixo... -esan genion guk etorri berriari Antonio hizketan jarraitzea nahi baikenuen guk.*
- *Segi, Antonio, segi...Zer egin zenuen hegazkina gasolinarik gabe geratu zitzaizunean? – galdetu nion nik.*
- *Suerte izugarria izan nuen. Ez dago sinesterik nolako suertea. Laino bat neukala azpian ikusi nuen, eta gustura asko geratu nintzen ni hegazkina poliki-poliki laino haren gainean gelditu nuenean. Bestela akabo, orain ez nintzen hemen arituko zuei egiak kontatzen.*
- *Eta gero zer gertatu zen, Antonio?*
- *Hegazkina mutur-motz bat pasatu zen handik. Eskerrak hari. Alto egin (gelditzeko esan) eta gasolina pixka bat kendu nion.*
- *Bai, e?*
- *Bai, bai. Hori horrela da. Eta honelaxe kontatuko luke, hemen balego, niri gasolina eman zidan hegazkineko pilotoak ere. Beno, ttaka...orain etxera noa, untxiak jezteko (esnea atera) dauzkat oraindik eta.*



Testu egokituak: Antonio Bolas (J. Ormazabal, 2011)

### J FITXA

- Pasarteak kontatu ondoren, ikasleei **datozen egunetan Antonio Bolasen bihurrikeria/gezurtxo gehiago ezagutuko ditugula jakinaraziko** diegu. 4. egunetik aurrera **ikasleek Antonioren anekdotak irakurri eta kontatuko** dituzte. Honela antolatuko gara:
  - ✓ 4. egunetik 12. egunera: pasarte bat kontatuko da egunero. Hortaz, guztira, 9 ikaslek kontatuko dituzte pasarteak (9 pasarte daude).  
Ikasle bakoitzak pasadizo bat irakurriko du etxean eta ondoren, kontatu egingo du. **ZOTZ** EGINGO DA zein ikaslek kontatuko duen jakiteko, guztira 9.
  - ✓ 10tik-12.egunera: gainerako ikasleek (pasarteak kontatu ez dutenek) bilatutako asmakizunak kontatuko dituzte.
- Irakasleak ikasleei ondoko **pasarteak banatuko** die, izan ere, lehen egunetan irakasle - ikasle elkarrekin landuko dituzte.  
Kontsigna: *Antionioren pasarte txiki bat banatuko dizuegu, irakurri etxean lasaitasunez, eta ea zer ulertzen dugun. Datorren egunean komentatuko dugu.*

Baliteke hasiera batean ikasleei idatzizko pasarteak konplexuak gertatzea, horregatik irakasleak lasaitu egingo ditugu eta talde lanean, elkarri lagunduz, arituko garela gogorarazi.

### BEDERATZI ETA HUTS

Igande ilunabarra. Betiko galdera. Zer egin du Errealak? Antoniok bazekien:

-Bederatzi eta huts irabazi du gol bat sartuta.

-Nola, nola?

-Ateko poste batean iltze bat zegoen eta baloiak hantxe jo du erdiz erdi. Bederatzi puska eginda geratu da baloia, eta puska guztiak barrura sartu dira. Arbitroak bederatzi gol bezala kontatu behar direla erabaki du.

Testu egokituak: Antonio Bolas (J. Ormazabal, 2011)

### K FITXA

- Etxean irakurri den pasartea berreskuratuko da. Guztion artean irakurri ahoz gora eta azaldu irakaslearen laguntzarekin.
- Bihurrikeriaren eskema aintzat hartuta (B fitxa), guztion artean irakurritako Bolasen pasadizoan **zein informazio eman den aterako da irakasle eta ikasleen** artean, alegia zein “eskema” duen kontakizunak. Hartara, ikasleek aurrerago kontuan har dezaten.

Adibidez:

Norekin

Non gertatu zen

Zer gertatu zen

...

## L FITXA

- Irakasleak ikasleei ondoko pasartea banatuko die.  
Kontsigna: *Bolasen pasarte txiki bat banatuko dizuegu, irakurri etxean lasaitasunez, eta ea zer ulertzen dugun. Datorren egunean komentatuko dugu.*

## ESKERRAK MAILUARI

Benetako hotza egiten zuen egun hartan, belarriak eta sudurra estalita ibili beharreko horietakoa. Goiz hartan larri asko (oso larri) ibili omen zen gure Antonio Gezur ere. Hala kontatu zuen, behintzat, berak:

*-Aix... rediez...Horrelakorik ez zait sekula gertatu. Goizean etxetik irtendakoan hasi naiz pixa egiten, eta pixa, erreka izoztu bat bezala geratu zait, horma (izotza) zirudien. Eskerrak mailua eskuan neukan; harekin hautsi dut burdina baino gogorragoa zen pixa izoztua. Bestela han egon beharko nuen mugitu gabe, "kieto parau" eguzkia berotzen hasi eta pixa-erreka urtu arte. Baai...eskerrak mailuari!*

Testu egokituak: Antonio Bolas (J. Ormazabal, 2011)

### M FITXA

- **Kontsigna eman eta lana antolatu.**

**Kontsigna:** orain zuen txanda da, nahiko genuke zuei entzun Bolasen bitxikeriaren bat. Etxean pasarteak irakurri eta landu dugun eskemaren arabera kontatuko dugu datozen egunetan.

Zenbait kasutan, parentesi artean azpimarratuta, hitz baten esanahia beste modu batean agertuko da, hobeto uler dezazuen. Dena den, guk ere hiztegia bilatuko ditugu ulertzen ez ditugun hitzak.

Lana antolatu:

- ✓ 4. egunetik 12. egunera: pasarte bat kontatuko da egunero.  
Hortaz, guztira, 9 ikasle kontatuko dituzte pasarteak (9 pasarte daude).  
Ikasle bakoitzak pasadizo bat irakurriko du etxean eta ondoren, kontatu egingo du. **ZOTZ EGINGO DA** zein ikasle kontatuko duen jakiteko, guztira 9.
- ✓ 10tik-12.egunera: gainerako ikasleek (pasarteak kontatu ez dutenek) bilatutako asmakizunak kontatuko dituzte.

### ANTONIO BOLASEN PASARTEAK



## 1. ASTOA ITO

Udazkena zen. San Adrian inguruko pagadietan perretxiko asko zegoela zabaldu zen bolo-bolo herrian (herrian alde guztietatik zabaldu zen albistea).

Antoniok ere entzun zuen hori, eta asto eta guzti joan zen perretxiko bila, asto-saskiak perretxikoz beteta ekarri eta marka guztiak hautsiko zituelakoan (perretxiko asko ekarriko zituelakoan). Labana txiki bat ere bazeraman poltsikoan.

Ez zen gezurra jendeak zioena. Perretxiko asko zegoen, lurra perretxikoz beteta zegoen. Hura Antonioren poza! Han zebilen gure gizona “ttaka eta ttaka”, perretxikoak bildu eta asto-saskietara bota...

Eta halako batean (bat-batean) izugarrizko perretxiko alea (perretxiko bat) aurkitu zuen, ia bera baino altuagoa. Antoniok eraman zuen labana txikiegia zen tamaina hartako perretxikoa ipurditik ebakitzeko. Bultzaka eta tiraka ere saiatu zen, baina ezin zuen lurrera bota.

- *Orduan, lotu nion astoa perretxikoari eta etxera joan nintzen korrika motozerraren bila – kontatu zigun iluntze batean Antoniok berak-. Baina bueltatu nintzenerako astoa itota zegoen.*
- *Itota, nola?*
- *Ni etxean izan nintzen bitartean, perretxikoa izugarri hazi zen (handitu), baina, izugarri, e! Eta hari lotuta zegoenez, zintzilika geratu zen astoa. Ni joan nintzenean han zegoen, lurretik hiru-lau metrora, itota. Izugarrizko pena eman zidan.*
- *Hori ez da horregatik egia izango, Antonio?*
- *Gezurra ez baldin bada, bai. Ttaka...*



Testu  
Antonio


egokituak:  
Bolas (J.  
Ormazabal, 2011)

## 2. SUA

Bada Beasainen lurre izeneko auzo bat. Gasolindegi bat dago han, goierritarrentzat (goierri= Gipuzkoako eskualde bat) oso ezaguna. Oria ibaia ere handik oso hurbil pasatzen da. Antoniok ondo ezagutzen zituen inguru haiek.

Dena den, Antoniok egun batean honelaxe eman zigun lurren gertatu zenaren berri:

- *Larri ibili gara lurren. Izugarria gertatu da izan ere!*
- *Tira, tira. Orain ere botako duzu zuk toneladako gezurren bat (gezur handi bat) – esan zion norbaitek.*
- *Utziozu, ba, kontatzen! – beste batek.*
- *Errekak su hartu, gizona! Errekak su hartu. Horitxe gertatu da. Norbaitek poxpoloren bat (sua pizteko) itzali gabe bota du, nonbait, eta... - Antoniok serio-serio.*
- *Eta?*
- *Eskerrak gasolindegia bertan dagoen. Bestela ez dakit zer gertatuko zen, Orioraino joango zen sua. Baina gasolindegiko mangera luzatu dugu errekaraino eta gasolinarekin itzali dugu sua.*
- *Barreak eta algarak.*



### 3. LAINOA

Antonio bere lagun batekin autoan zihoan, kopilotuaren eserlekuan. Egun hartan lainoa itxi-itxi zegoen, dirudienez, eta ez zen ia ezer ikusten.

- *Horrela ez dago, ba, aurrera jarraitzerik* – esan zuen gidariak, eta gelditu egin zuen autoa.
- *Itxoin pixka batean, laster konponduko dugu hau* – esan zuen Antonio Bolasek, eta autotik irten zen.

“Zertara doa, baina, hori?”, galdetzen zion gidariak bere buruari. Baina oso denbora gutxi behar izan zuen den-dena ulertzeko. Han azaldu zen Antonio zarba handi bat (adartxo asko) eskuetan zuela. Eta esan zion gidariari:

- *Arrankatu kotxe hori eta jarraitu niri!*

Autoaren aurretik korrika txikian (korrika baina poliki) joan zen Antonio, zarbari bi eskuekin alde batera eta bestera eraginez. Antoniok berak honela bukatu zuen kontakizun hura:

- *Han joan nintzen ni kotxearen aurretik bixkor-bixkor, zarba batekin lainoa apartatuz.*

Beste behin esan omen zuen Antoniok Zegamatik Beasaineraino joan zela erratz bat hartu eta autobusaren aurretik korrika, lainoa kenduz.



#### 4. ZER MODUZ HEGAZKINA?

Antonio Bolasek bere gezurretan gehien erabiltzen zuen gaia hegazkinarena izango zen ziur aski (seguru). Hegazkina pasatzen ikustean, esaten zien haurrei:

- *Begira, hegazkina badoa bere umetxoengana.*


Jendeak galdetu ohi zion (galdetzen zion) askotan: *Zer moduz zure hegazkin hori?*

Eta era askotako erantzunak eman ohi zituen (ematen zituen). Adibidez:

- *Umeak ateratzen ari da; hantxe geratu da ganbaran geldi-geldi hamabi arrautza azpian dituela. Eta biharamunean (hurrengo egunean) galdetu zioten:*
- *Jaio al dira zure hegazkinkume horiek?*
- *Gaur goizean arrautzatik kanpora aterata zeukan batek burua, eta ni etxera joaterako jaiota egongo dira ziur aski denak.*

Honako hau ere erantzun omen zuen behin hegazkinagatik galdetu ziotenean:

- *Atzo egin zituen bederatzi ume: zortzi hegazkin eta helikoptero bat.*



## 5. ERROSKAKO PITILINA

Tabernan geundela, Antonio komunera joan zen. Makur-makur eginda itzuli zen, eskuak tripa barrenera (barrura) eramanez. Eta esan zigun:

- *Ez naiz oso ederki ibili komunean.*
- *Zer gertatu zaizu, ba, Antonio? Zerbait grabea?*
- *Bai, nahiko grabea. Pitilina etxean ahaztuta etorri naiz. Han egongo da mesanotxearen gainean (ohe ondoko mahaitxoaren gainean).*
- *Nola, nola?*
- *Nik pitilina erroskakoa daukat, eta gauean kendu egiten dut. Gaur goizean ahaztu egin zait janzte, eta pixa egitera joan naizenean komeriak... oso mingarria da pitilirik gabe pixa egitea. Bai... ai ama!!*
- 

Testu egokituak: Antonio Bolas (J. Ormazabal, 2011)

## 6. ARKAKUSOA

Askotan bezala, Ordizian zebilen Antonio asteazken eguerdi batean. Feria eguna (merkatu eguna), noski, eta jende asko. Bi gizon ezezagunengana hurbildu zen Antonio, eta bost kiloko arkakusoa ikusi zuela plazan esan zien.

Ahoa zabal-zabal eginda (harrituta) geratu omen ziren biak hori entzutean. Antonio ez zegoen isilik egoteko egun hartan ere, eta honela jarraitu omen zuen:

- *Bai, bai, hantxe dago arkakusoa mahai baten gainean. Berak salto egiten du tarteka aldamenean daukan pisu batera, eta neure begiekin ikusi dut bost kilo nola pisatzen dituen.*

Ez dakigu bi gizon horiek joango ziren arkakusoa ikustera ala ez. Garbi dago Antoniok ez zuela bost kiloko arkakusorik ikusi, eta garbiago oraindik jendeari adarra jotzea zela berari gehien gustatzen zitzaion ofizioa.



## 7. GEREZIAK

Egun batean, Antonio motorrean eraman zuen lagun batek kaletik etxeraino. Eta motorretik jaisterakoan, oso esker oneko, esan omen zion Antoniok lagunari:

- Eskerrik asko. Izugarrizko faborea egin didazu. Gogoratuko naiz zurekin. Gabonetan eramango dizkizut gereziak.
- Lasai, motel, ez daukazu ezertan ibili beharrik. Niri ez zait ezer kostatu zu kaletik hona ekartzea – erantzun zion lagun motorzaleak.

Handik pixka batera, etxerako bidean, konturatu omen zen motorzalea Antoniok adarra jo ziola. Nola eramango zizkion, ba, Gabonetan gereziak, urte sasoi horretan ez da gerezirik izaten eta?

Bere artean barrez joan omen zen motorrean Antonioren laguna.





## 8. HAIZEA

Bazter guztiak eraman beharrean ibili zen (gauza guztiak airean eraman zituen) gau hartan haizea Zegama aldean. Hurrengo egunean, huraxe zen denen ahotan zebilen gaia (*denek hitz egiten zuten horri buruz*): haizea eta haizea.

Antonio ere ez zen isilik geratu. Entzuteko modukoa da, bai, hark kontatu zuen istorio xelebrea:

- *Haizea? Bazen nahikoa bart gauean (atzo gauean) gure etxean. Deedio!! Baaai... Jakingo bazenute zer gertatu zaidan...Jaiki naiz, ba, komunera gauerdialdera, eta logelara itzuli naizenean, koltxoia falta. Leioa zabalik ikusi dudanean, segituan konturatu naiz haizeak eraman duela nire koltxoia. Korrika batean atera naiz etxetik nengoen bezalaxe, galtzontzillo hutsetan (bakarrrik galtzontzillotan), eta han joan naiz ia Seguraraino koltxoiaren atzetik. Bidearen erdi-erditik eraman du haizeak, izugarritzko abiaduran. Baina harrapatu dut, bai, halako batean, korrikaldi galanta egin ondoren. Ondo kostata hala ere! Eta bizkarrean ekarri dut koltxoia etxera, lau kilometro baino gehiagoko bidean. Orain bizkarreko min galata (min handia) daukat, baina, ttaka, koltxoia han dago oheari kate batekin lotuta geldi-geldi. Ez du gehiago haizeak eramango, ez.*





## 9. ODOLA ATERA ETA...

Ospitalera joan zen batean, odola atera zioten Antoniori analizatzeko. Ondoren, herritar batekin topo egin zuen ospitalean bertan, eta esan omen zion Antoniok:

- *Medikuak harrituta utzi ditut.*
- *Zer, ba? Zergatik?*
- *Odola ateratzera etorri naiz eta untxiaren odola daukadala esan didate. Ez al da harrizkoa? E? Eta neuk ez dut ezer nabaritzen.*

Hori esaten zuen bitartean, tip, tip, salto txikiak egiten zituen. Eta isiltzeko batere gogorik ez zeukanez, hizketan jarraitu zuen:

- *Bai, hor geratu dira begiak zabal-zabal eginda dozena bat mediku baino gehiago nire odolari begira.*



## N FITXA

- Aditzen lanketarekin hasiko gara **poliki-poliki**. Bizitzako pasadizoen kontaktak “**izan**” **aditza lehenaldian** erabiltzea eskatuko du. Hortaz, “izan” aditzaren orainaldiko eta lehenaldiko formak landuko dira dinamika honetan.
  - ✓ **Ni naiz** abestia guztiok entzun eta kantatu: <https://www.youtube.com/watch?v=IUJ8jtgUvWU>
  - ✓ **Birritan** edo **hirutan** jarri abestia ikasleek ere kanta dezaten.
  - ✓ **Abestia kantatu LEHENALDIKO** formekin: *ni nintzen, hi hintzen, hura zen...* kantan agertu ez arren, irakasleak bideratuko du.  
**Garrantzitsua:** helburua da ikasleek poliki-poliki formak ezagutzea, eta kantu bidez egiturak gero eta ezagunagoak egitea.
  - ✓ Irakasleak nahi izanez gero, “txuleta” jar dezake arbelean. Hau da:
    - Ni
    - Hi
    - Hura
    - Gu
    - Zu
    - Zuek
    - Haiek

### Ñ FITXA

- “*ni naiz*” **abestia** berriz kantatu, **oraingoan buruz: lehenaldiko** formak erabiliz (*ni nintzen, hi hintzen...*)
- Ondoren, berriz, kanta abestu baina **UKAN** aditza (Nor 3. perts) erabiliz (*nik dut, hik duk/n, hark du, guk dugu, zuk duzu, zuek duzue, haiek dute*).
  - ✓ Orainaldian **eta lehenaldian (nuen/nituen...)**.
- Oharra:
  - ✓ Irakasleak arbela baliatuko du.
  - ✓ Proposa daiteke jolas moduan: aditzak zerrendatzeko arbelean eta paper batekin estali erantzun batzuk.
  - ✓ Ikasleek abestiaren erritmoa marka dezakete, perkusio moduan.

### O FITXA

- Azken hiru egunetan ikasleek **asmakizunak ekoiztuko** dituzte. Pernandoren “zuloak zulo”: [https://www.youtube.com/watch?v=-IG6\\_r6BFe0](https://www.youtube.com/watch?v=-IG6_r6BFe0) asmakizunarekin lotura eginez, ikasleei honakoa eskatu diegu:  
Kontsigna: guk ere asmakizunak ezagutzen ditugu, bestela ere, bilatu egingo ditugu sarean, liburuetan... eta asmakizun bat kontatuko diogu elkarri.
- Bolasen pasarteak kontatu ez dituzten ikasleek dute lehentasuna, dena den, gainerakoek ere nahiko balute, aukera izango dute.

### P FITXA

- Esperientzia, pasadizo, bihurrikerien... kontaketan oso ohikoak izaten dira **ekintza-aditzak**: hautsi nuen, bota, irristatu, bultza... **Hortaz, dinamika honetan ekintza-aditz berriak landuko dira**:

Esne beltzaren abestiaren bideoa jarriko dugu:

<https://www.youtube.com/watch?v=i1yBZh4Gbw0>

Bideo ikusi ahala, bertan agertzen diren ADITZAK (euskaraz bizi/ikasi/sendatu...) jasotzeko eskatuko diegu ikasleei.

OHARRA: “txortan egin” aditza agertzen da, irakasleak aintzat har dezan.

- Ondoren, guztion artean elkarbanatuko dugu informazioa: *ezagutzen ditugu? zer esan nahi dute?*

### Q FITXA

- Pernando Amezketarraren pasadizoekin bukatu eta berriz ere gure esperientzietara joko dugu. Ikasle bakoitzak udararen batean izandako esperientzia bat kontatuko du objektu baten laguntzarekin, egunero 3 ikaslek kontatuko dute, bakarka.  
**Kontsigna:** *negu giroa dagoen arren...uda ez daukagu hain urrun...uda-txirta txoritxoak oso gogoan ditu egoera goxo horiek beti epeletik dabil-eta. Guk ere izango dugu eguraldi ona egin dueneko zenbat istorio, ezta? Udara batean izandako esperientzia bat kontatuko du norberak, eta horretarako objektu bat balia dezakezue (museoetako sarrerak, txartelak...).*
- Ikasleei **gogora ekarriko** diegu zein den jarraituko dugun **eskema** gure mezua antolatzeko (noiz, norekin, non, zer...).

### R FITXA

- **Ekintza-aditzak** eta **lehenaldia** ikasteko: “ZERTU”ren jolasa. Galdera bat proposatuko da eta erantzunean, ekintza-aditzen tokian “ZERTU” aditza erabiliko da. Ondoren, gainerako ikasleek asmatu beharko dute zein den “ZERTU” aditzari dagokion forma.

**Adibidez:**

*Zer egin zenuen lehengo astean?*

Irakasleak adibidetu egingo du: *lehengo astean egunero goizean jaiki eta aurpegia garbitu ostean, **ZERTU** egin nuen. Eta sukaldean **ZERTZEN** ari nintzen bitartean, telebista ikusi nuen. ZERTU=gosaldu, ZERTZEN= gosaltzen.*

- Talde handian lehenbizi, eta ostean, binaka.
- Erantzun laburreko galderak egin daitezke hasieran, luzeagoak gero.

## S FITXA

**Datozen egunetan ikasleen ekoizpenen gainean egingo dira esku-hartzeak. Hau da, ikasleen ekoizpenetako indargune eta ahulguneak baliatuko dira, eta horren arabera, zuzenketak, birformulazioak... egingo dira. Jarraian esku-hartzeko hainbat aukera:**

- **Ikasleei feedbacka eman:** irakasleak jaso egingo ditu ikasleek erabilitako hizkuntza egiturak. Ondoren, indarguneak eta ahulguneak aipatuko dira. Ahulguneen kasuan, gainerako ikaskideen laguntza baliatuko du irakasleak forma egokiak eskuratzeko.
- **Gogorarazpen lanak:** feedbacketik ateratako ondorioak gogoraraziko ditu irakasleak eta datozen egunetako ekoizpenetan erabiltzeko eskatuko du.
- **Errepikatzen diren akatsak mahaigaineratu:** guztion artean zerrendatu, irakasleak zerrendatu, forma zuzenak bilatu, birformulatu....
- **Akatsen kutxatxoa:** egunetik egunera agertzen diren akatsak papertxo baten idatzi ondoren, kutxa baten sartuko dira (lehenik argitu egingo dira). Bizpahiru egun pasata, kutxatik papertxoa atera eta gogora ekarriko dugu aurretik landutakoa.
- **Instituzionalizatu:** aurreko egunetan landutako alderdietan (izan/ukan lehenaldiko formak, ekintza-aditzak, lexiko berria...) jarriko da fokua: zein egitura agertu den, zein lexiko barneratu den, zer gertatuko zaien lagungarri hurrengo errutinerako (esperientziaren kontaketarako)...ikasleekin batera ezagutza adostu eta jaso egingo da horma-irudietan. Horma-irudi horiek lanabes eta bitarteko izango dira hurrengo errutinetarako.
- **Ikasleen txartela:** ikasleei emandako feedbacka arbelean jasoko da (egitura berriak, edo zuzenak, esaterako). Ondoren, ikasle bakoitzak koloretako txartel bat izango du eta bertan jasoko ditu arbeletik lagungarri zaizkion egiturak edo adibideak. Norberak bere txarteltxoa sortuko du beharren arabera, eta kontuan hartuko ditu bertan jasotakoak ondorengo ekoizpenetan.
- **Elementu paraberbalak:** intonazioari lotuta ere gomendioak eman daitezke ikasleei, beraiek ere poliki-poliki fokua horretan jar dezaten.